

► ZARAUTZ

# Oztopo guztien gaineratik

■ Sanpelaiotarako prestatu duen egitaraua aurkeztu zuen Txosna Batzordeak. ■ Udalaren jarrera eta mehatxuak salatu zituen. ■ Euskal Herria Askatuk txupipazora ikurrinak eramateko deia egin du.

Gaur arratsaldeko zortzietan zabalduko dira festetarako Malekoian jarri diren bost txosnak. Hauen inguruan, gainera, egitarau berezia prestatu du Txosna Batzordeak. Egitarau horrekin batera, Udalarekin izan dituzten arazoak aurkeztu zituzten batzordekideek atzo eguerdian emandako prentsaurrekoan. Egitarau ofiziala ere gaur hasiko da banderaren igoerarekin.

Gari BERSALUZE

Egitarauan, ostirala bitartean ekitaldi desberdinak biltzen dira. Gaur 8.30ean Gazte Asanbladak prestatutako afaria egingo da eta 11etan danborrada ibiliko da herrian ZAGAK antolatuta.

Festen amaierak asteburuarrekin bat egiten duenez, gainera, Txosna Batzordeak Udalari larunbatean txosnak zabaldu ahal izateko baimena eskatu ziola argitu zuen Jon Gastaharesek. Ordurako festak amaitu direla argudiatuz, ordea, ezezkoa eman du Udalak.

Udalarekin izandako harremanetan sortu diren arazoak azaldu zituzten. Pello Iruretagoienak «Udalaren jarrera nahiko inprobisatzailea dela» salatu zuen. Bestalde, «inposaketa aipatu behar da, azken momentuan beti agindu zehatzekin etortzen baitzaigu. Agindu horiek gainera, mehatxu modukoak dira, agintzen digutena betetzen ez badugu baimena ukatuko digutela eta hurrengo jailetarako ezer ez dugula lortuko baitakigu», esan zuen.

Harreman hauei dagokionez, hiru puntu nabarmendu nahi izan zituzten Batzordeak. Lehenik, azken bi urteotako arazorik larriena txosnetarako tokia zehaztea dela esan zuen. Sanpelaiotan Malekoian jarriko badira ere, hau Udalaren proposamena izan zela argitu zuen Iruretagoienak. Batzordeak onartu egin

zuen ideia, «azken batean erdigunetik nahiko gertu dagoelako kokaleku hau». Dena dela, bitxikeria modura, Udalak kokalekutzat Asti edota Abendano ere proposatu zituela esan zuen.

Bigarrenik, dirulaguntzak aipatu zituen Iruretagoienak. «Txosna Batzordeak festak antolatzen lagundu nahi du, jendeak parte hartzeko egitarauak prestatu eta ideia berriei. Udaltxeak horretarako, festetarako, presupuesto bat badu. Baina badu kontraesanik. Batetik, herriko erakundeek parte hartzeko eskatzen baitie egitaraua prestatzeko orduan. Bestalde, ordea, egitarauak aurkezten direnean dirua zertan gastatu behar den sinpatuta dagoela adierazten dute: suak, plazako berbenak eta abarrek. Ideia berrientzat ez dago, beraz, dirurik».

### Parte hartzea

Hirugarren puntua parte hartzearena izan zen. Hots, festak antolatzeko bileretan Udalak ez duela inolaz ere Txosna Batzordea kontuan izaten. «Jazkoan deitu ez arren, aurten deia egingo ziztziola hitz eman zion Udalak Batzordeari, baina aurten ere ez digu deitu —gogoratu zuen—. Euren arteko desbaidio bat izan dela esan digute, ahaztu egin zaiela».

Txosnak Malekoian kokatzea, sei izatea eta, taberne bezala,

goizaldeko bostetan itxi behar izatea adostu zuten Udalarekin. Joan zen ostiralean, ordea, alkaterean dei berezia hartu zuen Txosna Batzordeak bilera bat egiteko. Bertan, alkateak bost txosna bakarrik jarriko zirela eta goizeko lauretan itxiko zirela agindu zion Txosna Batzordeari. Honek ez du ulertzen «azken uneko jarrera inposatzaile hori».

Batzar Antimilitarista, CNT, KAS, Amnistiaren Aldeko Batzordea eta Euskal Herriko Euzkaraz eta Egunkaria izango dira txosnak izango dituztenak. Azken unean Udalak bost txosna bakarrik jartzeko agindua eman duenez, azken bi talde hauek txosna bakarra izango dute bien artean.

Egitarau ofizialari dagokionez, gaur 7etan aterako da umeen danborrada eta 8etan Berdura Plazan herri afaria egingo da. 11etan helduen danborrada hasiko da. Gaueko 11.45ean Lege Zaharren Enparantzan koadrilak bilduko dira eta gauerdian herriko ikurrina goratuko da.

Zarauzko Euskal Herria Askatu plataformak txupipazora ikurrinak eramateko deia zabaldu du. «Azken hilabeteetan Imanol Muruak izan du salatze moduko jarrerarik. Honela, bigarreneko aldiz Ortega kartzeleroaren askatasinaren aldeko manifestaldi bati babesa eman dion bitartean, egun batzuk lehenago bera buru den alderdiak Udaleko giza eskubideen batzordea desegin zuen, bere sorreratik Zarauzko presoen egoera apur bat ez delarik hobetu —dio—. Hitzak ez direlako aski, presoek aldeko ekintza konkretuak nahi ditugulako, ikurrinez lagundurik emango diegu hasiera jaiak».



Txosnak Musika Plazatik Malekoira pasatuko dira.

JAVIER GALLEGO

**EGYZKI**  
**EDARITEGIA**

**Berezitasunak:**  
Pintxo hotz eta beroak eta "EGUZKI" ebakia

Nafarroa kalea, 8  
ZARAUTZ



**TERIN**  
**TABERNA**  
BIXKONDE KALEA  
ZARAUTZ

**Carrocerías Odriozola**  
CHAPA PINTURA

Urte bidea, s/n • Tel. 13 07 65 • ZARAUTZ

**EASCONUR**  
SOLIDARIDAD CON  
**RUANDA**  
Central Hispano:  
Suc. 1, cuenta 7.000

**ARRANO ELKARTEA**  
KULTUR EKINTZAK,  
DANTZA, TXISTU, DANBOR,  
IKASTARÖAK, MONTETXIO  
KORÖA ETA ORKESTRA,  
GIRO JATORRA, BOKATAK  
ETA PLATER KONBINATUAK

**KUPELA**  
ZARAUTZ

**Marina Txiki**  
taberna  
Lonja Zaharra, 2/g • Tel. 83 00 17 • 20800 ZARAUTZ

**XIMUT**  
Taberna  
Bixkonde, 3  
ZARAUTZ

**TXIKIPOLIT**  
PENSIO • PENSIO  
Bainu eta TB.  
duten logelak.  
Dentsio osoa  
edo dentsio erdia.  
Musika enparantza  
Tf.: (943) 83 53 57  
ZARAUTZ